

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure negozioa indartzeko eta arrakasta izango duela bermatzeko, ezinbestekotzat ikusten dugu gure segmentu berdina lantzen ari diren eragileengana jotzea. Azken finean, gure enpresaren helburua izango da egunerokotasunean haien beharrak betetzeko arazoak dituztenei laguntzea. Horretarako, behar ditugun baliabideak ekonomikoki ez dute esfortzu handirik suposatzen. Hortaz, gure enpresaren gakoa ez da beste enpresa edo bazkideen bidez egoera ekonomikoa erraztea, baizik eta beste enpresen laguntza behar dugu gure irudia indartzeko eta konfiantzazko enpresa garela ikusarazteko. Horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu segmentu berdina lantzen ari diren eragileengana jotzea.

Gure enpresak nagusiki pertsona helduen eta ezgaitasun fisiko eta psikologikoak dituztenen premiak asetzea lehenetsiko du, haiek izango baitira gure enpresaren muina eta landuko dugun segmentuko zatirik handiena. Beraz, gerora gure segmentua zabaldu nahiko dugun arren, hasiera batean hori hartuko dugu kontuan gure irudia hobetzen lagundu diezaguketen enpresak aukeratzeko eta horrela gure enpresa aurrera eramateko. Horren lekuko dira, besteak beste, *Osakidetza*, *Mindara*, *Gureak* eta Errenteriako zahar-egoitza.

Asko dira enpresa hauetara joaten diren eta gure bazkideak izan litezkeenak. Horregatik, hasteko, ideia ona izango litzateke, enpresa hauei gure enpresaren berri ematea. Gure helburua aurkeztuz eta gurekin konfiantza sortuz. Gustatuko litzraiguke ez bakarrik behin joatea eta gure enpresaren berri ematea, baizik eta enpresaren jarduera aurrera doan heinean informazioa helaraztea, haiek enpresaren norabidea nolakoa izango den jakiteko eta bezeroei gure enpresaren berri ematean kontuan izateko.

Azken finean, horrela, esan bezala, segmentu berdinarekin lan egingo dugunez, lagundu diezagukete pazienteak gure enpresara bideratzen. Horri esker, hauek konfiantzazko enpresak direnez, haien gomendioak begi onez ikusiko baitituzte. Ondorioz, asko gure enpresara etor litezke laguntza eske. Gainera, guk eskainiko dugun zerbitzua gustatzen bazaie, haien artean ere gomendatzen hasiko dira, horrela ere gure irudia indartuz eta gure negozioa konfiantzazkotzat ikusiz.

Horretaz gain, esan beharra dago aipatutako enpresei ere interesa dakiekeela, izan ere, *Pausoz, pauso!* bakarrik egin ezin dituzten premiak asetzen ahaleginduko da eta enpresa horietara joaten diren bezero askok horren beharra dute. Beraz, enpresa hauek ere haien bezeroen ongizatea bermatu nahi duten horretan, gure enpresaren kontaktua izatea aukera bikaina da, haiek ere arazo horren aurrean irtenbidea izateko eta haien pazienteei haien arazoak konpondu ditzakeen enpresa bat gomendatu ahal izateko.